



RSC ETA MEMORIA JARDUERA ELIKA

2020

AURKIBIDEA

A. Zuzendaritzaren Gutuna

B. 2020. urtearen laburpena

1. ELIKA Fundazioaren Izaera

- a. RSC Politika
- b. Gobernu Organoak
- c. Aliantzak eta Interes Taldeak
- d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

2. Kultura estrategikoa

- a. Misioa
- b. Ikuspegia
- c. Balioak
- d. Helburu Estrategikoak
- e. Jardueren laburpenak

3. Dimentsio ekonomikoa

- a. Balioa handitzea
- b. Balantzea eta kontuak

4. Gizarte-dimentsioa

- a. Talde profesionala
- b. Gizartea eta ingurunea

5. Ingurumen-dimentsioa

- a. Ingurumenarekiko konpromisoa
- b. Ingurumen-zeregina

6. Etorkizuneko erronkak

A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA


ELIKA Eusko Jaurlaritzaren eskutik jaio zen, Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzeko; izan ere, alderdi hori oso garrantzitsua da bai kontsumitzaileentzat bai, oro har, gizartearentzat. Sortu zenetik, ELIKAk ezinbestekotzat jo du gizartearekiko konpromisoa. Nolanahi ere, erakunde publiko gisa dauzkagun lege-betebeharrez eta gure izaera beraz harago, gizarte-erantzukizuneko estrategia bat sortu dugu. Horren bidez, oinarritzko jarduketa-lerroak eta gizarte-konpromisoarekin lotutako proiektu batzuk definitu ditugu.

Memoria honen bitartez, gure interes-talde guztiei jakinarazi nahi diegu ELIKA erakunde aurreratua, lehiakorra, solidarioa, hurbila, irisgarria eta gizartearekiko eta ingurumenarekiko konprometitua izatea lortzeko konpromiso irmo eta seguruari eusten diogula. Horrez gain, euskara, berdintasuna eta gardentasuna sustatzeko konpromiso sendoa ere badugu.

2020a ezberdina izan da, zaila gizarte-mailan, pandemia bat bizi baitugu. Erreakzionatu eta egokitu behar izan dugu egoerak ekarritako mugapenekin bizitzera; izan ere, horiek denongan izan dute eragina, begirunerik gabe. Egokitze-lan hori multidimentsionala izan da: gizarte-mailan, familia-mailan, gizabanako gisa eta langile gisa ere eragin baitugu. Lanarekiko eta gure lan-ingurune pertsonetikiko ohiko harremana eraldatu du, pantailen bidez komunikatzen ikasi behar izan dugu, eta master espres bat egin behar izan dugu teknologia berrietan. Eta hori guztia gu geu edo ingurukoak COVID19az kutsatzeko beldurrez. Asko ikasi dugu guri buruz, eta pentsatu nahi dut segurutzat hartu ditugun gauza askoren balioaz kontzienteago garelara orain.

Hala eta guztiz ere, ELIKAk ezarritako helburuak bete ditu aurren; beharrezkoa zen egokitzeko ahalegina egin du, inoiz baino indartsuago, Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektoreari, pandemia honetan ezinbestekoa izan denari, behar bezala erantzuten laguntzeko. Hori guztia lortu dugu, berriz ere, ELIKAKo taldea osatzen duten pertsona guztien konpromisoari eta ahaleginari esker.

Aurren, gainera, eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, gure interes-taldee, 2020. urtean zehar lagundu eta babesteagatik.



Sin. Miren Arantza Madariaga Aberasturi

ELIKAKo Zuzendaria

B. 2019. URTEAREN LABURPENA

Antolakuntzaren kudeaketaren arloan, aurtan pandemiak gure kudeaketa-sistema berretsi egin du. Izan ere, oso erabilgarri suertatu zaigu urte zail honetan, zeinetan gure lan egiteko modua aldatu behar izan dugun. Kudeaketa daukagun hainbat urtetako eskarmentuari esker, errazago egokitu ahal izan dugu aldaketetara, eta laneko erritmoa ez galtzen ere lagundu digu faktore horrek, gure kudeaketa-jardunbideei eutsi diegulako. Urtearen zati handi bat erabili dugu erdietsitako helburuei buruz hausnartzeko eta 2021-2024 aldirako estrategia berria sortzeko. Estrategia hori bat etorriko da Itun Berdeak ezarritako Europako gidalerro berriekin eta Baserritik Mahaira estrategiarekin, baita Garapen Iraunkorrerako Helburuekin ere. Estrategia berria definitzeko egindako parte hartzeko prozesua ere azpimarratu nahiko genuke; izan ere, gure interes-taldeetako 40 pertsonaren baino gehiagoren iritzia eta proposamenak jaso ditugu.

Elikagaien Segurtasunaren politikaren hedapenean **Euskadiko Administrazioari aholkularitza zientifikoa eta tekniko emateari dagokionez**, aurtan gure lan-eremuarekin lotutako hainbat jarduketa-lerrotan parte hartu dugu. Horien artean nabarmentzekoak dira elikagaien alertak ebaluatu eta kudeatzeko aholkularitza eta Elikagaien Segurtasuna hobetzeko proiektuak martxan jarri izana. Alerten esparruan, gure harri-koskorra ekarri genuen Zaldibargo lur-jausiaren ondoren, baita COVID-19agatik osasun-alertan ere; bi kasuetan, nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren segurtasunari zegokion alorrean. Gauzatutako proiektuei dagokionez, hauek azpimarratu nahi ditugu: lehen mailako produktuen kantitate txikiak hurbileko merkataritzan saltzeko araudi-esparrua ezartzea, elikagaien segurtasuna hobetzea gaztaren esparruan, Elikagaiak Xahutzearen aurkako Estrategia sustatzea, eta 2017-2020 aldiko Elikagaien Segurtasunaren Ikerketa Planaren eta 2016-2020 aldiko Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planaren barneko azken urteko jarduketak.

Elikakateko operadorei babesa eta laguntza emateari dagokionez, gure interes-taldeen eskutik jaso ditugun eskaera guztiei erantzun diegu. Eskaera horiek gero eta gehiago dira urtez urte, eta, oro har, araudi eta lege-betebeharren aplikazioari, produktuen etiketatzeari, elikagaien kontrol ofizialari eta pentsuei, eta elikagaien arrisku zehatzei buruzko zalantzak eta informazio-eskaerak izaten dira. Era berean, mantendu edo hobetu egin ditugu Elikagaien Segurtasuneko betekizunak errazago ulertu eta aplikatzeko tresnak. Zentzu horretan, azpimarratzekoak dira LEGAELIKA, legeen arloko datu-base berria; pentsuen arrisku-mapa; etiketatzeari buruzko *micrositea*; eta WIKI-ELIKA, elikagaien segurtasunari eta nutrizioari buruzko 1.000 termino baino gehiago jasotzen dituenena. Elikagaien Xahuketaren aurkako Estrategiaren esparruan, zenbait laguntza-tresna garatu dira, hala nola mahaikide bakoitzarentzako anoa kalkulatzeko kalkulagailua, elikagaiak aprobetxatzeko errezeta-liburua, eta elikagaien soberakinak dohaintzan emateko orientazio-gida.

Gure interes-taldeen prestakuntzaren esparruan, askotariko gaiei buruzko prestakuntza-ekitaldiak antolatzen jarraitu dugu, hauekin lotuta: jardunbide egokiak, APPCC sistemak, eta elikagai eta pentsuak ekoitzi eta merkaturatzeko betekizun higieniko-sanitarioak. Testuinguru horretan, aipatzekoa da unibertsitateko ikasleentzat eginiko prestakuntza-ikastaroa, elikadura seguru, osasungarri eta jasangarriko ohiturak sortzeari buruzkoa. Parte-

hartze handia izan dugu prestakuntza-jarduera horietan, nahiz eta gehien-gehienak telematikoki egin behar izan ditugun. Horrez gain, parte-hartzaileek gogobetetasun-maila handia adierazi dute. Beste alde batetik, zenbait erakundek beren jardunaldi eta ikastaroetan hizlari gisa parte hartzera gonbidatu gaituzte; gai hauen esparruan, nagusiki: arriskuen prebentzioa eta kontrola, araudi higieniko-sanitarioaren malgutzia, elikagai eta pentsuen kontrol ofiziala, elikagaien xahuketa eta elikagaien jasangarritasun-politikak.

Azkenik, **komunikazioari eta informazioa zabaltzeari** dagokienez, gure interes taldeei informazio eguneratua ematen jarraitu dugu nazioartean elikagaien segurtasunari buruz argitaratukoei buruz, betiko formatuetan: albisteak, txostenak, artikulak, laburpenak, fitxak, liburuxkak, infografiak eta bestelako informazio-materialak. Horri lotuta, nabarmentzekoa da COVID-19ari eta Elikagaien Segurtasunari buruzko informazio guztia biltzeko sortu den web-orria. Ildo horretan, informazio hori guztia ohiko baliabideetan dago eskuragarri, adibidez, korporazioaren webgunean eta kontsumitzaileari zuzendutako web-orrialdean. Biak ala biak berritu ditugu erabat azken bi urteetan. Horrez gain, Elikaberri hileko buletinean eta Twitter, Facebook eta LinkedIn sare sozialetan ere eskuragarri dago informazio hori. 2020. urte honetan, kanal berri bat ireki dugu Instagram sarean, nagusiki gazteei zuzenduta. Bereziki nabarmentzekoa da azken urteotan handitu egin dela informazioa bide horietatik jasotzen duten erabiltzaileen kopurua, baita gure argitalpenek komunikabideetan duten agerraldi kopurua ere. Gauzak horrela, ondorioztatu daiteke elikagaien segurtasunaren arloan Euskadiko erreferente bihurtzeko bidean gaudela, 2020rako egitekoan adierazi genuen bezalaxe.

1. ELIKA FUNDazioAREN IZAERA

ELIKA Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzara atxikitako Fundazio Publikoa da, eta bere helburua EAEn Nekazaritzako Elikagaien Segurtasuneko gradu gorena lortzeko tresna izatea da.

Fundazioa 2001. urtean eratu zen, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezinbestekoak diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta aholkularitza emateko. Garai hartatik, elikagaien ekoizpen-kateko operadoreei eskatzen joan zaizkien Elikagaien Segurtasunaren arloko exijentziak eta beharrak finkatu dira, baita administrazio publikoari ere, operadoreen aldetik exijentzia horiek betetzea zaindu eta kontrolatzeko.

Baldintza horiek guztiek ELIKA Elikagaien Segurtasuneko erreferente bihurtzen dute; izan ere, esperientzia eta ezagutzak biltzen ditu Elikagaien Segurtasunak barne hartzen dituen esparru guztietan, kudeaketaren bikaintasun ereduak ditu, eta gainera, inguru aldakorri egokitzen joan da, bere lana garatuz bere jarduketa-esparruan interes-talde guztien parte-hartzea sustatuz.

20 urte norabide berean, eta xede berarekin: EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun-mailarik handiena lortzea.

a. Gizarte erantzunkizun korporatiboko politika

Fundazio publiko gisa, gure bokazioa zerbitzua da. Gure helburua ez da soilik gure sortze-xedeak betetzea eta Euskadiko Elikagaien Segurtasuna hobetzeko lan egitea. Horrez gain, zorrotzagoak izan behar dugu gure gizarte-erantzukizunarekin, euskal gizarteak gudan inbertitzen dituen baliabideei balioa ateratzen saiatuz, eta hori etika, gizarte eta ingurumenaren arloko zenbait jokabide erantzule betez eginez.

Hasiera-hasieratik, guretzat garrantzitsua izan da **gizartearekiko konpromisoa**, fundazio publiko garen heinean ditugun legezko betebeharez eta gure egitekoaz haratago.

Halaber, gure 2021-2024 aldirako estrategia berriarekin bat etorritik, ingurumena errespetatzen dugu, prestakuntza eta komunikazio elebiduna bultzatzen dugu (euskara eta gaztelania) eta erakunde irisgarriaren, gardenaren eta hurbilaren irudia ematen diogu euskal gizarteari oro har, kalitateko lana eginez, horrek balioa eta babesa ematen baitie elikagaien segurtasunaren inguruan dauden egiturei. Era berean, gizartearekiko dugun konpromiso hori betez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta gardentasun-legea betetzen dugu.

Horrenbestez, Euskadiko Agenda 2030ean jasotako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) identifikatu eta lerrokatu egin ditugu gure helburu estrategikoekin, honela:



b. Gobernu organoak

PATRONATUA

Patronatua da ELIKAREN gobernu, administrazio eta ordezkari organo gorena. Organo horrek bere mende ditu fundazioaren kudeaketaren zuzendaritzatik eta kontrolatik eratorritako agente guztiak, fundazioak ezarritako helburu guztiak betearazteko beharrezkoak direnak. Honako hau da gure patronatuaren egungo osaketa:

PRESIDENTEA	Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila		
PRESIDENTEORDEA	Javier Plasencia Elikagaien kalitate eta Industriako Zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila		
IDAZKARIA	Rogelio Pozo AZTI-ko Zuzendaria		
BATZORDEKIDIAK	Peli Manterola Zuzendari-gerentea HAZI fundazioa	Itziar Larizgoitia Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria Osasun Saila	M^a Olga Santamaría Kontsumobideko zuzendaria
	Leire Barañano NEIKER-reko zuzendaria.	Leandro Azkue Arrantza eta Akuikultura zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	
	M^o Luz Ruiz Ekonomia eta Ogasun serbitzu Zuzendaria Ogasun eta Finantzen Saila	Jorge Garbisu Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	

c. Aliantzak eta interés taldeak

Gure interes taldeak 6 multzo handitan daude sailkatuta: patronatua, bezeroak, kolaboratzaileak, pertsonak, hornitzaileak eta gizartea.



- **PATRONATUA:**
Eusko Jauriaritza (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika, Osasuna, Ogasuna), AZTI, Neiker, HAZI eta Kontsumobide.
- **ALIATU ESTRATEGIKOAK:**
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza eta zuzendaritzak, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, AZTI, Neiker, HAZI, Kontsumobide, foru-aldundiak (nekazaritzako eta abeltzaintzako zuzendaritzak), Eudel.
- **ZERBITZUEN HARTZAILEAK / BEZEROAK:**
 - **Administrazioa:**
kudeatzaile politiko eta teknikoak: Eusko Jauriaritza, foru-aldundiak eta udalak.
 - **Elikakateko operadoreak:**
elkarteak, sindikatuak, industriak, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreetako eragileak, abeltzaintza- eta nekazaritza-sektoreetako ustategiak, pentsu-fabrikak eta abar.
 - **Ikerketa-zentroak:**
unibertsitateak, zentro teknologikoak...
 - **Kontsumitzaileak**
- **KANPOKO LAGUNTZAILEAK:**
Euskalit, Zientzia Batzordea eta adituak.
- **FOROAK ETA SAREAK:** Katilu, Q-EPEA, Funko, Europako sareak ...
- **ELIKAKO KIDEAK**
- **ANTZEKO ERAKUNDEAK / ELIKAGAIEN SEGURTASUNEN AGENTZIAK:**
Estatukoak eta autonomietakoak: AECOSAN, ACSA, AASA...
Europakoak: EFSA, FSA, ANSES...
- **GIZARTEA**

BEZEROAK ETA KOLABORATZAILEAK

Gure **bezeroak** gure produktu eta zerbitzuen hartzailerak diren erakunde eta/edo pertsonak dira, gure erakundean traktore-lana egiten dutenak. Hiru bloke handitan banatzen dira: administrazioa, elikakatea eta kontsumitzaileak.

Bestalde, gure produktu eta zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko egiten ditugun jardueretan nolabait parte hartzen duten **kolaboratzaileen** sare handia ere badaukagu.

Horiekin guztiekin etengabeko kooperazio- eta lankidetzaren harreman ona dugu, eta, horrez gain, epe luzerako konfiantzazko harremana ere ezartzen saiatzen gara; hartara, modu iragarrian tratatzen ditugu, betiere gure profesionaltasuna mantenduz eta egoera berrietara etengabe egokituz, beharrezkoak diren hobekuntzak eta berrikuntzak txertatuz.

- Gure bezero eta kolaboratzaileen asebetetasun-maila: 8,18

PERTSONAK

Elikan lan egiten duten **pertsonak** dira erakundearen baliorik garrantzitsuenak eta, aintzat hartuta gure oinarria ezagutza dela, ezinbestekotzat jotzen dugu etengabe jasotzen dugun prestakuntza.

Pertsona guztiok egiten dugu lan estrategia definitu eta ezartzeko, baita lan-giro atsegina sortzeko ere. Horri garapen pertsonala eta bizitza pertsonala eta profesionala bateratzeko erraztasunak gehituta, **handitu egiten da pertsonok ematen ditugun produktu eta zerbitzu guztiekiko dugun motibazioa, konpromisoa eta inplikazioa.**

- Elikako pertsonen asebetetze-maila: 8,56

HORNITZAILEAK:

Hornitzaileak gure baliabideen bitartez eman ezin ditugun ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak dira, gure beharrezkoen eskaintza ekonomiko erakargarriekin erantzuten dietenak. Hornitzaileak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera kontratatzen dira, eta kontratazioei buruzko informazio guztia gure webguneko gardentasun-atarian dago eskuragarri. Konfiantzazko harreman erraz eta ona daukagu gure hornitzaileekin.

- Elikaren hornitzaileen asebetetasun-maila: 9,29

GIZARTEA

Guretzat, gizartea gure lanaren inguru soziala da, eta, beraz, gure jardueraren eragina jasan dezake. Fundazio publiko garen heinean, gizarteari balioa emateko sortu ginen, eta ezinbestekotzat jotzen dugu, beraz, konpromiso soziala, bereziki, bost arlo hauetan: gardentasuna sustatzea, berdintasuna bultzatzea, euskararen erabilera indartzea, datu pertsonalak babestea eta ingurumena errespetatzea. Halaber, jarduketara zehatzak gauzatzen ditugu ekarpen sozialaren esparruan, gure inguruan dauden beharrezkoak estaltzera bideratuta daudenak.

- Gizartearen asebetetasun-maila: 8,21

d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

Gure kudeaketa-eredua prozesuak kudeaketa da; horrenbestez, honako prozesu hauetan daude jasota gure ekintza guztiak:

- P01 – Estrategiaren eta kudeaketaren planifikazioa
- P02 – Prozesuak eta berrikuntza
- P03 – Pertsonen kudeaketa
- P04 – Aholkularitza
- P05 – Zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorra
- P06 – Prestakuntza eta informazioa
- P07 – Aurrekontuaren eta administrazioaren kudeaketa
- P08 – Hornitzaileak eta baliabideak

Horrez gain, hainbat **ezagutza-esparru** definitu ditugu, lantzen ditugun gai guztiak jasotzen dituztenak:

- Elikagaien segurtasuna
 - Nekazaritza
 - Abeltzaintza
 - Arrantza
 - Elikagaien industria
 - Animalien elikadura
 - Elikadura jasangarria
 - Elikadura osasungarria

2. KULTURA ESTRATEGIKOA

a. ELIKAre misioa



b. ELIKArek ikuspegia

2024 Ikuspegia: Honelako erakundea izan nahi dugu



Erabilgarria eta beharrezkoa
administratzaioak o eta elikakateko langileentzat elikadura-politikak ezartzeko.

Berritzailea
eta elikagaien segurtasunaren kultura berria **sustatzen** duena.

Erreferentziakoa
Euskadiko gizartearentzat elikaduraren arloan.

Pertsona konprometituek, efizienteek eta motibatuek osatua.

Sozialki arduratsua, aurreratua kudeaketan eta **lankidetzan eta partaidetzan lanetan.**

c. ELIKArek balioak

Elikaren baloreak



Ilusioz lan egiten dugu, eta helburu estrategikoak lortzeko inplikatzeko.

motibazioa

d. Helburu estrategikoak



e. 2020ko ekintzen laburpena

2020an ELIKAren jarduketa-arloetan egindako ekintza garrantzitsuenak hauek dira:

1. Aholkularitza zientifikoa eta teknikoa

Euskal administrazioari aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko lanekin jarraitu dugu, bai zuzenean bai zeharkako idazkaritza teknikoaren bitartez. Ekintza hauek nabarmendu daitezke:

- ✓ Elikagaien Segurtasunean erabakiak hartzeko oinarritzat Arriskuen Analisiaren **sistematika** indartzea.

➤ NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ALERTEN KUDEAKETAN ETA KOMUNIKAZIOAN LAGUNTZEA:

- Zaldibarko zabortegiko luiziaren krisia: Zaldibarko zabortegiko luiziagatik kaltetutako eremuko nekazaritzako elikagaien ekoizpenen Elikagaien Segurtasuneko inpaktuari buruzko txostena: batzorde tekniko bat sortzea; lurraren, larreen eta elikagaien hiru lagin diseinatzea; kutsatzaile kimikoak

aztertzea; Euskadiko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoak emaitzak baloratzea; krisi-mahaietan agertzea; eta prentsaurrekoetan parte hartzea.

- COVID-19aren osasun-alerta: laguntza zientifiko eta tekniko ematea nekazaritzako elikagaien sektoreko protokoloak egiteko eta merkaturatze-alternatibetarako logistika egiteko. "Koronabirusa eta elikagaien segurtasuna" informazio-materiala (triptikoak eta bideoak) eta webguneko materiala egitea.
- Gipuzkoako mingain urdinaren fokua: webgunerako informazio-materiala eta komunikaziorako barneko erantzun-oharra egitea.
- Animalien Osasuneko alertetan jarduteko prozedura egitea.
- Hegazti-gripeari eta Afrikako txerri-izurriari buruzko informazioa prestatzea, fokuen hurbiltasuna dela eta. Komunikaziorako barneko erantzun-oharrak egitea.

➤ **GAZTAREN ELIKAGAIEN SEGURTASUNA HOBETZEKO JARDUERA PLAN INTEGRALA:**

- Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko agenteekin batera, ikerketa-proiektuak zehaztea "Listeria eta Staphylococcus aureus hainbat gazta motatan" gaiari buruz eta emaitzen jarraipena eta komunikazioa egitea.
- Esnearen Kalitatearen Programa homogeen bat adostea, hiru lurraldeetako ardi- eta ahuntz-ustategietarako, eta sektoreko agenteekin atxikitzea bultzatzea.
- Sektoreko agenteentzako prestakuntza-ekintzak antolatzea.

➤ **EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAKATEAREN KONTROL OFIZIALAREN PLAN AUTONOMIKOA DINAMIZATZEA:**

- Lantaldeei aholkularitza- eta idazkaritza-lanak egitea tartean dauden administrazioekin (Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Nekazaritza eta Abeltzaintza, Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura, eta Elikagaien Kalitate eta Industria).
- Kontrol ofizialeko programak, lan-prozedura normalizatuak, ikuskaritzako akten ereduak, urteko txostenak eta ikuskaritzen osteko hobekuntza-planak egitea eta eguneratzea.

➤ **2017-2020 aldirako Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketaren Koordinazio Planaren** urteko hedapenean aholkularitza tekniko ematea:

- Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaiaren idazkaritza.
- Ikerketa-beharrizanak identifikatzea eta lehenestea.
- Ikerketa-beharrizanak proiektuetara lekualdatzea; 24 zaintza-proiektu eta -ekintza finantzatu ditu Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industria Zuzendaritzak eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak (aurrekontu osoa: 820.152 euro).
- Proiektuetako ikerketa-zentroetako partaidetza koordinatzea.

- ✓ Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpenerako betebeharrak higieniko-sanitarioei buruzko aholkularitza teknikoak:

➤ **Hurbileko salmentan** bete beharreko baldintzei buruzko aholkularitza:

- Euskadiko nekazaritzako elikagai-produktuen hurbileko salmentaren dekretuaren zirriborroa egitea.
- Foru-aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Hazi fundazioarekin koordinatuta lan egitea gauzatutako aldaketetan, hurbileko salmenta eta salmenta zuzena jasotzeko REGAn eta eskaera bakarreko REGEPA fitxan, hurrenez hurren.
- Lantalde bat sortzea eredu-ordenantzak egiteko merkatu eta azokak antolatzeko.
- Arartekoarekin eta Lehiaren Euskal Agintaritzarekin bilera egitea, ordenantza berrian esleipen-irizpide berriak ezartzeko.
- Salmenta zuzeneko kanalak COVID-19aren neurrietara egokitzen laguntzea, eta protokoloa eta koordinazioa egitea ADRekin.

➤ **Animaliak garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentro txikiak** baimentzeko autonomia-erkidegoko araudia egiten laguntzea.

➤ **IVAC-EEIrekin bitartekaritza egitea Biozidak** aplikatzeko sektorean konpetentziak egiaztatze prozesuan.

✓ Elikagaiak Xahutzearen aurkako Euskal Estrategia (zerodespilfarro.eus) hedatzea, sei jarduera-ildotan oinarrituta:

- Elikagaiak alferrik galtzearen kuantifikazioa eta arrazoiak.
- Soberakinak dohaintzan emateko jarraibideak.
- Sentsibilizazioa eta komunikazioa.
- Sare solidarioen babesa.
- Araudiaren azterketa.
- Ikerketa eta soluzioak.

2020ko jarduera nagusien artean daude honako hauek:

- Hiru lantalde dinamizatzeko: LT-Sentsibilizazioa, LT-Dohaintzarako jarraibideak eta LT-Ikerketa eta soluzioak.
- Kuantifikazioko sektoreko proiektuetarako aholkularitza.
- Soberakinak aprobetxatzeko sare solidarioak sortzeko laguntza. Ertzaintzaren Akademiako, Jakioneko eta beste batzuetako soberakinak.
- www.zerodespilfarro.eus webgunearen garapena.
- Sentsibilizazio-kanpainaren antolakuntza eta hedapena. 12 erronka... Helduko diezu? (Odespilfarrouretea).
- ✓ Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa hedatzen parte hartzea. Elikadura eta Osasuna eta Sentsibilizazioa Lantaldeetan eta Kudeaketa Batzordean parte hartzea.
- ✓ ZTBPKo RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategia hedatzen parte hartzea Katilun (nekazaritza- eta elikadura-sektoreko eta landa zein itsasertzeko ingurunerako lankidetzako berrikuntza-espazioa) integraztearen bidez.
- ✓ GUNEAn parte hartzea; Lehendakaritza buru duen eta 17 kidek osatzen duten lantaldea da: Agenda Basque Country 2030 egitasmoa abian jartzeko gida egitea eta euskal enpresa eta erakundeei ematea.


- ✓ Kudeaketa hobetzeko lantaldeetan parte hartzea eta tokiko produktua eskola-jantokietako menuetan sartzea.
- ✓ IHOBEn koordinatutako Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren Batzorde Teknikoan parte hartzea.
- ✓ Elikagaien Segurtasunari eta Iraunkortasunari buruzko Europako bi saretan parte hartzea: ERANET Co-fund SusAn “Animalia Ekoizpeneko sistema iraunkorren Europako Sarea” eta Arrisku Kimikoak Ebaluatzeko OMEren Sarea.
- ✓ FoodRUs Europako Berrikuntza Proiektuan parte hartzea, lankidetzako elikagaien sistema zirkularrari buruzkoan, nekazaritzako elikakatean elikagaiak alferrik galtzea eta xahutzea murrizteko.

2. Elikakateko langileei babesa eta laguntza ematea

Aholkularitza-ekintzak egiten jarraitu dugu Elikagaien Segurtasuneko politikak hedatzeko, tartean dauden eragile guztiak lankidetzan aritu eta parte hartzeko. Gure interes-taldeen **215 eskaerei** erantzun zaie (% 40 elikakateko langileenak; % 32 administrazioenak; % 15 zentro teknologiko eta unibertsitateenak; % 7 herritarrenak, eta % 6 komunikabideenak).

2020. urtea

Eskaera-kopuru osoa: 215



- Nº solicitudes medios comunicación
- Nº solicitudes consumidor/a
- Nº solicitudes CCTT
- Nº solicitudes del sector (ag. sectoriales + operadores)
- Nº solicitudes de la administración

Eskaera gehienak (% 82) Elikagaien Segurtasunarekin lotuta daude (lege-betebeharrak, etiketak, elikadura-arriskuak, kontrol ofiziala...), eta neurri txikiagoan Elikadura Iraunkorrarekin (% 15) eta Osasuntsuarekin (% 3).

Era berean, **10 prestakuntza-ekintza** antolatu dira, eta **372 pertsonak** parte hartu dute. Asebetetze-maila **8,3koa** izan da.

- Haragia merkaturatzeari buruzko mintegia, otsailak 19, Gasteiz.
- Betebehar higieniko-sanitarioak malgutzeari buruzko jardunaldia, otsailak 27, Azpeitia.
- Zuzendaritzaren sentsibilizazioa eta inplikazioa pentsu-fabriketako APPCC sistemetan gaiari buruzko ikastaroa, otsailak 26, Lakua (Gasteiz).
- Begetalen betebehar higieniko-sanitarioak malgutzeari buruzko jardunaldia, ekainak 10, *streaming* bidez.
- Pentsuen higie eta manipulazioaren arloko jardunbide egokiak, ekainak 11, *streaming* bidez.
- Akuikulturako Elikagaien Segurtasunari buruzko jardunaldia, ekainak 25, Pasaia.
- Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketa Emaizak Transferitzeko VII. Jardunaldia, uztailak 2, *streaming* bidez.
- Arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpeneko Higienarako Kontrol Planaren ikuskatzaileentzako ikastaroa, uztailak 21, Arrantzako Ikuskaritza Zerbitzuaren egoitza, Bilbo.
- SUSAN proiektuei buruzko mintegi birtuala, azaroak 16-17, *streaming* bidez.
- Pentsuak banatzeko laguntza planei buruzko ikastaroa, azaroak 26, *streaming* bidez.

Gainera, 2019an Donostiako Campusean esperientzia pilotu bat egin ondoren Asociación Junior Empresa KIMERArekin (Mondragon Unibertsitatea), 2020. urtean **UPV/EHUko ikasleentzako prestakuntza-ikastaro** bat antolatu dugu. Ikastaroak 25 ordu iraun zituen, eta 11 saio telematikoko egin ziren azaroan eta abenduan. **100 gaztek** hartu zuten parte. Ikastaroaren helburua izan zen tresnak eta egiazko informazioa ematea, adituen eskutik, elikadurari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko eta, horrela, ohitura seguru, osasuntsu eta iraunkorrak sortzeko.

Bestalde, Elikako pertsonoi **hizlari** gisa parte hartzera gonbidatu gaituzte beste erakunde batzuek antolatutako **22 jardunaldi edo ikastarotan**. Batez ere gai hauekin daude lotuta: arriskuen prebentzio- eta kontrol-neurriak, araudi higieniko-sanitarioa malgutzeari, elikadura eta pentsuen kontrol ofiziala, elikadura zirkular eta iraunkorra, elikagaien xahutzea eta elikadura-iraunkortasuneko politikak, Europako itun berdea eta baseritik mahaira estrategia.

Halaber, **LEGAELIKA legedia-tresna** garatu da. Bertan, Batasunaren, estatuaren eta autonomia-erkidegoaren mailako elikadura-legedia kontsulta daiteke, baita horien aldaketak ere. Erabiltzaileek kontsultak egin ditzakete bilatzaile erraz eta aurreratuak esker, eta araudia besteak beste gaien, hitzen, daten eta buletinaren arabera bilatzeko aukera ematen dute.

Euskadin Elikagai Soberakinak Dohaintzan emateko Orientazio Gida ere egin da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, hiru euskal hiriburuak Osasun Zerbitzuekin, Ausolagun, Oreka eta Amatemann SLrekin lankidetzan. Eskuliburu horri esker, normalizatu egingo dira gaur egun lurraldean egiten diren soberakinen dohaintzak, eta, era berean, elikakateko gainerako langileek dohaintzak egitea erraztuko du (lehen mailako ekoizpenetik HORECA sektoreko txikizkako saltoki eta enpresetara).

Halaber, elikadura-xahutzearen aurkako estrategian, **aprobetxamenduko errezeta-bilduma bat, jale bakoitzeko errazioak kalkulatzeko tresna bat** eta Euskadiko elikagai-xahutzearen aurkako **ekimenen mapa** bat sortu dira. Hori guztia webgune honetan eskuratu daiteke: www.zerodespilfarro.eus.

Ekimena mapa

Errazio kalkulagailuak

Helduentzako kalkulagailua

Helduentzako errazio kalkulagailua

Elikagai eta mahalkide bakoitzeko errota egokiaz kalkulatu dituzte

Mahalkide kopurua

1

Erakutsi beharreko unitateak

gramoak

Elikagaia

Arroza (Plater nagusia)

Emaitza

90



3. 3.- Informazioaren hedapena eta komunikazioa

EFSAk (Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza) eta nazioarteko Elikagaien Segurtasuneko agentziek argitaratutako informazio zientifiko guztia atzeman eta gure interes-taldeen esku jartzen dugu hainbat formatutan (**albisteak, txostenak, artikulua, informazio-materiala, infografiak...**), gure ohiko argitalpenen bidez (**webgunea, buletinak, sare sozialak...**). Egutero, erreferentziatzko 970 webgune arakutzen ditugu, Elikagaien Segurtasuneko berrien bila.

Urtero, VT-IC **txosten** bat egiten dugu, urte osoan bildutako informazioarekin. Informazio horien azterketa da urteroko kudeaketa-planari eragiten dioten erabaki estrategikoetako askoren oinarria.

2020. urtean, gure webgunean **169 albiste** argitaratu ditugu Elikagaien Segurtasunarekin eta Elikadura Osasuntsu eta Iraunkorrarekin lotuta. Halaber, **59 informazio-material** (artikuluak, infografiak, posterrak, bideoak...), **hileroko 11 "ELIKABerri"** buletin eta **lauhilekoko 6 txosten** argitaratu ditugu **pentsu** eta **elikagaien alerta-sareko (RASFF)** jakinarazpenei buruz, baita alerta horiek biltzen dituzten **urteko 2 txosten** ere.

Egindako informazio-materialen artean azpimarratzekoa da **elikadura-arriskuei buruzko 20 fitxa** egin direla eduki eta formatu berriarekin, baita **animalien gaixotasunei buruzko 6 fitxa berri** eta **12 informazio-fitxa** ere elikagaien xahutzea murrizteko kontsumo-ohiturak aldatzea sustatzeko.

Wegbuneari dagokionez, **"COVID-19 eta Elikagaien Segurtasuna"** microsite berria sortu da, elikakateko eragileentzat (lehen sektorea, ostalaritza, elikagaien industria...), birusari eta birusak sektorean duen eraginari buruzko azken berriak jakinarazteko. Gune berri horren 40 erreferentziatik gora jaso dira (eskuliburuak, infografiak eta lege-berritasunak), eragileak pandemiak sortutako esparru berrira hobeto egokitu ahal izateko.



Era berean, **elikagaien industrietarako** ataleko edukia eguneratu da, baita azpiatal bat sortu (Elikagai Osagarriak) eta etiketei buruzko micrositearen edukia eguneratu ere.

Elikadura Osasungarria micrositean aldatu eta eguneratu egin ditugu edukia, eta atal berriak sortu ditugu: "Osasuntsu jan" eta "Zer irakurri etiketan aukera osasuntsua egiteko". Gainera, "Elikaduraren inguruko mitoak" atalean mito berriak jaso dira.

Elikadura Iraunkorraren esparruan, **zerodespilfarro.eus** webgunea sortu da. Gune horretan jaso da elikagaien xahutzearen aurkako Euskadiko estrategiari buruzko informazio guztia, baita garatutako tresnak eta egindako informazio-materialak eta sentsibilizazio-kanpainak ere. Testuinguru horretan, **#Odespilfarroutea** sentsibilizazio-kanpaina egin dugu. Egitasmo horretan, 12 erronka (hileko bat) zabaldu ditugu, elikagaien xahutzea murrizteko ohiturak sortzen laguntzeko.

Eduki teknikoa jasotzen duten webgunez gain, dibulgazioko beste formatu batzuk ere baditugu Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioa herritarrei iritsi ahal izateko, hala nola kontsumitzaileentzako webgunea (2019an osorik berritua) eta **Wiki-Elika**, elikadurari eta nutrizioari buruzko 1.000 terminotik gora dituen.

Horri guztiari esker, **gure webguneetan hileko 65.000 erabiltzaileko batezbestekoa izan dugu**. Guztira, **1.211.030 orri ikusi dira**.

Era berean, Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioa zabaldu dugu sare sozialetan. **8.902 erabiltzailera** iritsi gara **Facebook, Twitter eta LinkedIn** sareetan. Berriki, **profila** sortu dugu **Instagram sarean**, biztanle gazteengana iristeko asmoz. Testuinguru horretan, eta Asociación Junior Empresa KIMERAREN lankidetzarekin (4.000 jarraitzailetik gora ditu Instagram sarean), **12 bideo** egin ditugu gazteentzat.

Azkenik, Elikak komunikabideetan 67 inpaktu izan dituela zenbatu dugu. Nabarmenezkoa da irratian eta telebistan agertu dela, Zaldibarko zabortegiko luiziagatiko alertaren ondorioz, eta Euskal Telebistako *A bocados* programan kolaboratu duela. Halaber, idatzizko prentsan agertu da, gai horiekin lotuta. Gainera, *Eroski Consumer* aldizkariarekin akordioa egin du, edukiak hedatzeko.

4. 4.- Erakundearen kudeaketa bikaina:

2019an Kudeaketa Aurreratuko Euskaliten Urrezko A saria jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduan aurrera egiten jarraitzen dugu, eta gure kudeaketa-sistemaren aurrerapenaren jarraipena egiten dugu hilerok.

Ildo horretan, 2020an 2021-2024 aldirako **Hausnarketa Estrategikoa** egin dugu. Horretarako, barneko autoebaluazioaz gain, Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko jarraibide eta ildo estrategikoak jasotzen dituzten dokumentu guztiak bildu eta aztertu ditugu **liburutegi estrategiko** batean. Horrez gainera, partaidetza-prozesu bat egin dugu, eta gure interes-taldeetako 40 kideri baino gehiagorekin **elkarrizketak eta solasaldiak** egin ditugu, iritziak eta lan-proposamenak jasotzeko asmoz.

Era berean, hausnarketa egin dugu gure helburu estrategikoak Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin bateratzeko, Euskal Agenda 2030 egitasmoarekin bat

etorrita.

Bestalde, Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorreko sistemaren ziurtagiria berritu dugu (**UNE 166.006 araua**); sistema hori 2012az geroztik dago ziurtatuta. Gainera, gure webgune korporatiboko HON-Code (informazioaren kalitatea eta egiazkotasuna) eta WIS (osasun-intereseko webgunea) ziurtagiriak berritu ditugu.

Gure **Berrikuntza Plana** ezartzen jarraitzen dugu, etengabe eta modu sistematikoan berritzeko eta berrikuntzako arrakasta edo ikaskuntza gisa ebaluatzen diren proiektu berritzaileen zorro bat sortzeko.

Datuak Babesteko Europako Erregelamendu (**DBEO**) berrira egokitzeari dagokionez, hobekuntzak egiten jarraitu dugu, arlo horretan egunean indarrean dagoen araudia betetzeko.

Gure erakundeak konpromiso sendoa dauka **Berdintasunarekin**, eta **Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarean** eta **Arkauteko Nekazaritzako Elikagaien Campuseko Berdintasun Foroan** parte hartzen dugu. Testuinguru horretan, "**Laneko sexu-jazarpena eta jazarpen sexista**" jardunaldia antolatu eta bertan parte hartu dugu, martxoaren 8ko ekitaldien barruan, eta Azaroak 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean ere parte hartu dugu, eta gure gaitzespena erakutsi dugu.

Euskalduntzearen arloan, gure erakundean euskararen erabilera % 89koa da. **Euskaraldian** banaka parte hartu ondoren 2018an, aurten Arigune gisa parte hartu dugu; horrela, **euskara erabiltzen** duten ingurune edo taldeak bermatu ditugu.

Azkenik, pertsonen arloan, **Laneko Arriskuen Prebentzio Plana** eguneratzen jarraitzen dugu, Osasun Zaintza kudeatzen digun enpresarekin batera. Berriz ere Elikako laneko arriskuen balorazioa egiten ari gara, eta prestakuntza bat egin dugu lanpostuekin lotuta egon daitezkeen arriskuak saihesteko. Aurten, pandemia dela eta, telelana bultzatu dugu, COVID-19arekin eta espazioen erabilera partekatuekin lotutako arriskuak saihesteko, eta, halaber, prestakuntza jaso dugu telelanarekin lotutako ergonomian.

Prestakuntza horretaz gain, Elikako langileek **124 prestakuntza- eta gaikuntza-jardura** egin dituzte arlo tekniko, humano eta pertsonartekoetan trebatzeko asmoz; guztira **45 ordu egin dituzte pertsonako**.

3. DIMENTSIO EKONOMIKOA

a. Balioa handitzea

ELIKAN jardura eta zerbitzuen balioa handitzeko konpromiso sendoa dugu. Horrela, gure interes-taldeei eta bereziki gizarteari, ematen dizkiguten baliabideak itzuliko dizkiogu.

Gure lana erabateko gardentasunaz egiten saiatzen gara, eta, horretarako, jendaurrean jartzen ditugu Fundazioaren datu ekonomiko ikuskatuak. Erabateko gardentasunez lan egiten saiatzen gara, jendearen eskura jarrita fundazioaren datu ekonomiko ikuskatu guztiak. Gainera, lan-gai ditugun baliabideen kudeaketan eraginkortasuna bilatzeko, horiek kontrolatzea eta etekin handiena lortzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen ditugu.

ELIKAREN jarduera-markoa Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikorako Bulegoak ezarritako betekizunekin osatzen da. Horiek guztiak “Gobernu arduratsuen gida”-n eta “Barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua”-n daude ezarrita.

Nabarmentzeko datu gisa aipatu nahi dugu aurreko urteetan lortu dugun informazioaren gardentasuna indartu egin dugula.

Aurten gardentasun-ataria sortu dugu, eta atarirako esteka zuzena jarri dugu gure webgune berrian: www.elika.eus

b. Balantzea eta emaitzen kontua

ELIKAKO kudeaketa-taldeak Jardueren Plana aurkezten du urtero, eta Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna Sailak aurrekontua ematen dio. 2020. urterako aurrekontua 800.000,00 € izan zen.

Aurrekontu horrekin, Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak garatzen dira, patronatuak onetsia. Erika fundazio gardena a, eta, hiru hilean behin, gastuaren hileko segimendu ekonomikoa egiten du eta hura Eusko Jaurlaritzari bidaltzen dio. Gainera, datu ekonomiko guztiak bere webaren bidez argitaratzen ditu eta, urtero, ikuskaritza independentea egiten du; haren txosten osoa gure webgunean argitaratzen da.

Jarraian, 2020ko kontu ikuskatuen egoera-balantzea eta aurreko urtearekin egindako alderaketa aurkezten dira:

ACTIVO	Notas	31/12/2020	31/12/2019
A) ACTIVO NO CORRIENTE		55.497	0
I.- <u>Inmovilizado intangible</u>	5	<u>0</u>	<u>0</u>
Aplicaciones informáticas		0	0
III.- <u>Inmovilizado material</u>	6	<u>0</u>	<u>0</u>
Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material		0	0
VII.- <u>Deudores no corrientes</u>	11.1	<u>55.497</u>	<u>0</u>
 B) ACTIVO CORRIENTE		 354.014	 174.707
IV.- <u>Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar</u>	8	<u>65.570</u>	<u>0</u>
Deudores varios		65.570	0
VIII.- <u>Efectivo y otros activos líquidos equivalentes</u>		<u>288.444</u>	<u>174.707</u>
Tesorería		288.444	174.707

TOTAL ACTIVO		409.511	174.707

PATRIMONIO NETO Y PASIVO	Notas	31/12/2020	31/12/2019
A) PATRIMONIO NETO		204.852	113.519
A-1) Fondos propios	9	204.852	113.519
I.- <u>Dotación fundacional</u>		<u>486.668</u>	<u>486.668</u>
II.- <u>Reservas</u>		<u>6.800</u>	<u>6.800</u>
III.- <u>Excedentes de ejercicios anteriores</u>		<u>(379.949)</u>	<u>(372.812)</u>
IV.- <u>Excedente del ejercicio</u>		<u>91.333</u>	<u>(7.137)</u>
B) PASIVO NO CORRIENTE		79.629	0
II.- <u>Deudas a largo plazo</u>	11.1	<u>79.629</u>	<u>0</u>
Otros pasivos financieros		79.629	0
C) PASIVO CORRIENTE		125.030	61.188
III.- <u>Deudas a corto plazo</u>	8	<u>31.849</u>	<u>1.597</u>
Deudas con entidades de crédito		7.608	1.597
Otros pasivos financieros		24.241	0
IV.- <u>Deudas con entidades del grupo y asociadas a corto plazo</u>	8	<u>8.436</u>	<u>9.267</u>
VI.- <u>Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar</u>	8	<u>84.745</u>	<u>50.324</u>
Proveedores		44.875	14.061
Personal (remuneraciones pendientes de pago)		30	349
Otras deudas con las Administraciones Públicas	10.1	39.840	35.914
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO		409.511	174.707

4. GIZARTE DIMENTSIOA

a. Talde profesionala

Pertsonak dira ELIKAre politikaren ardatz nagusia. Beraz, familiako eta laneko bizimodua bateratzea, aukera-berdintasuna, hazkunde profesionala sustatzea eta laneko segurtasuna eta osasuna oinarritzko ardatzak dira pertsonen kudeaketan.

ELIKAKo giza taldea diziplina askotarikoa da; zehazki, zenbait adarretako bederatzi profesionalek (elikagaien teknologoak, biologoak, albitariak, ingeniariak agronomikoa, enpresen administrazioa eta zuzendaritza, zuzenbidea) osatzen dute. Guztiek dute esperientzia Elikagaien Segurtasunaren alorrean, elikakateko katebegietan.

Fundazioko pertsonen kudeaketari buruzko informazioa emate aldera, langileei, azken urtean eginiko prestakuntza-saioei eta langileen gastuei buruzko datuak eranstean ditugu.

ADINAK	35 eta 49 urte artean	6
	50 eta 55 urte artean	4
GENEROA	Gizonak	3
	Emakumeak	7
IKASKETA-MAILA	Goi-mailako tituludunak	10
LANBIDE KATEGORIA	Zuzendaritza	1
	Teknikariak	9
	Administrariak	0
ANTZINATASUNA	Antzinatasun handiena	20 urte
	Batezbestekoa	14 urte
KONTRATU MOTA	Mugagabeak	%80
	Aldi baterakoak	2
PLANTILLAREN TXANDAKATZEA	Altak	1
	Bajak	0

ELIKAn, konpromiso irmoa dugu gure langileekin, ez bakarrik lan-arlokoa, baita pertsonala ere. Une oro bilatzen dugu pertsonen lan-asebetetzea areagotzea eta, horretarako, proiektu berritzaileak dinamizatzen eta bilatzen ditugu eta enpresan prestakuntza jasotzea sustatzen dugu.

PRESTAKUNTZA	2018	2019	2020
Prestakuntza jasotzen duten langileen %	100	100	100
Prestakuntza-orduak guztira	306	237	405
Pertsona bakoitzak jasotzen dituen prestakuntza-orduak	38	30	45
Prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100etik)	81.6	76.8	75.8

ELIKAKo langileen lan-baldintzak urtero zehazten dira, berezko Hitzarmen Kolektiboaren bidez. Langile guztiak daude horren mende. Hitzarmen hori automatikoki eguneratzen da urtero, alderdietako batek behar bezala salatzen duenean salbu. Hitzarmen hori automatikoki eguneratzen da, urtero, aldeetako batek berariaz uko egin ezean.

Elikako langileen gastuak erakundearen aurrekontu osoaren % 71 inguru dira.

LANGILEEN GASTUAK	2018	2019	2020
ELIKAk langileen gastuak	487.636	541.036	546.730
Gastu osoaren gaineko %	60%	65%	71%

Lanean osasun- eta segurtasun-baldintza egokiak bermatuta izateko, bereziki lan-arriskuak ezabatuz, Lan Arriskuak Prebenitzeko Plana garatu dugu, prebentzioko kanpo-zerbitzu batekin lankidetzan. Gainera, osasuna zaintzeko zerbitzua dugu; horren bidez, pertsona guztiei egin behar zaie, urtean behin, azterketa medikoa.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LANGILEAK	2018	2019	2020
Laneko arriskuaren inguruko prebentzioan oinarrituko prestakuntza duten langileen %	20	20	100
Segurtasunean eta osasunean egiten den inbertsioa	420,39€	539,04€	1.463,94€

Era berean, aurten gure **Kode Etikoa** eguneratu dugu. Bertan, balioak sustatzen dira lanean pertsonen arteko harremanetan, komunikazioan, informazioaren zabalkundean eta interes-taldeekin dauden harremanetan.

2020 honetan ere bere sasoian abiatutako dinamikekin jarraitu dugu, pertsonen kudeaketaren arloan egindako lanaren emaitza gisa:

- Barneko komunikazio-dekalogoia ezartzea, eta dekalogo hori betetzea.
- Batzarren kudeaketa hobetzeko eta horien eraginkortasuna handitzeko jarraibideak ezartzea.
- ELIKArengatik egungo eta etorkizuneko beharrezanetara egokitutako prestakuntza-plana definitzea.
- Pertsonen konpromisoa eta inplikazioa erakundearen kudeaketan eta hobekuntzan, kualifikazio eta motibazio handiko taldeak osatzeko.

b. Gizartea eta ingurunea

2020 honetan, gizartearekin dugun konpromisoarekin jarraitu dugu. ELIKAk, fundazio publikoa den aldetik, bere izaeran du zerbitzu-bokazioa. Hain zuzen ere, horren erakusgarri dira ingurumeneari eta oro har gizarteari onurak eragiten dituzten eskumen gako hauek:

- Gure antolakuntza-kultura.
- Ezagutza gizarteratzea.
- Elkartasuna.
- Eredugarritasuna.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.

Gure **Antolakuntza-Kultura** propioa sortu dugu, eta kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta gardena ditu zutabe.

Gainera, ezagutza gizarteratzen dugu, webgunearen eta gizarte-sareen bidez argitaratuz. Halaber, prestakuntza-saioak eta jardunaldiak antolatzen ditugu gure esparruan gaur-gaurkoak diren gaien inguruan, eta prestakuntza-materialak sortzen ditugu, elikagaien segurtasunaren hainbat arlo profesionaleri, kontsumitzaileei eta oro har gizarteari hurbiltzeko.

Sare sozialetako bultzadari esker, 8.902 jarraitzaile lortu ditugu 2020an (2013an, 974 genituen), hiru sare sozialen artean: Facebooken, Twitterren eta Linkedinen.

Elikagaien Segurtasuna kalera eraman dugu; horretarako, Pint of Science 2020 antolatu dugu; horretan ere hizlari gisa parte hartu dugu.

Gainera, gure webguneko edukiak Honcode eta WIS (Osasun Intereseko Webgunea) akreditazioak lortu ditu. Hain zuzen, horiek erakusten dute webgune horretan agertzen den edukia egiazkoa eta kalitatekoa dela.

Adibide izan nahi dugu, eta gure hornitzaileei kontratazio-pleguetan zehaztutako baldintzak betetzeko eskatzen diegu, berrmatze aldera, guk bezala, ingurumenarekin konpromisoa dutela, ez dituztela legeria eta langileen eskubideak hausten, eta gizakien eta haurren eskubideak ere, ahal dela, ez direla urratzen.

5. INGURUMEN DIMENTSIOA

a. Ingurumenarekiko konpromisoa

Bi zutabe nagusi dira ELIKAren ingurumen-politikaren euskarri:

- **Gure jarduerak ingurumenean duen eragina murriztea**, geure prozesuetarako beharrezkoak diren natur eta energia baliabideen eta lehengaien kontsumoa albat gehien murriztuz, eta albat hondakin gutxien sortuz.
- **Informazio, prestakuntza eta lan-giro egokia eskaintzea geure langileei**, ahalegina egin dezaten erakundearen ingurumen arloko helburuak eskuratzearen.

ELIKAren jarduerak ez du eragin garrantzitsurik ingurumenean; baina, hondakinak sortzen ditugun heinean, albat gehien murrizten gara. Gainera, berrerabiltze- eta birziklatze-praktikak erabiltzen saiatzen gara, ahal den guztietan.

Gainera, “erosketa berde”-ko irizpideak erabiltzen dira, ingurumenari dagokionez arduratsuak diren hornitzaileak erabiltzeko beti.

a. Ingurumen zeregina

Instalazioak Arkauteko teknologia-parkean daude, ELIKAren gizarte-egoitza dagoen lekuan, eta bertan badaude hondakinen bilketa selektiboa egiteko aukera; beraz, halako kasuetarako gomendagarriena den “ziklo garbia” betetzen dela berrmatzen dugu.

Horrez gain, ura eta energiaren kontsumoa kontrolatzeko eta arrazionalizatzeko joera dugu. Duela zenbait urte ordeztu genuen berogailu-sistemako galdara biomasa-galdara batengatik, eta, orduetik, EAEko egurra erabiltzen dugu neguan bulegoa bero mantentzeko.

Kontsumo elektrikoa ere murriztu dugu, ordenagailuen pantailak LED pantailengatik ordeztuz.

Paperaren kontsumoari dagokionez, erabiltzen ditugun orrien gramajea 80 gramotik 75 gramora murriztu dugu, baita papereko argitalpen kopurua ere. Gauzak horrela, orain formatu digitaleko askoz ere argitalpen gehiago egiten dugu, baita jardunaldi eta ikastaroetan banatzen ditugun material gehiago ere. Ildo beretik, inprimatze-jardunbide egokien arabera jarduten dugu paperaren kontsumoa murrizteko, eta, beraz, inprimatze eraginkorreko ekipa bat erosi dugu. Gauzak horrela, tonerraren kontsumoa ere murriztu dugu.

6. ETORKIZUNeko ERRONKAK

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Euskadin elikagaien inguruko politikak definitu eta hedatzeko prozesuan laguntzea.
- Elikagaien Segurtasunaren kultura zabaltzea eta sektoreari laguntzea nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan.
- Euskal gizartea ahalduntzea elikagaien arloan erabakiak har ditzaten.
- Antolakuntza-eredu diferentzial aurreratua eta berritzailea sustatzea.

HELBURU EKONOMIKOAK

- Gutxieneko eta nahitaezko finantzazioa finkatzea.
- Inguru sozioekonomiko aldakorrera egokitzeko ahalmena mantentzea.
- Aurrekontu-ekitaldiz aurrekontu-ekitaldi cash flow positiboa izatea.

GIZARTE HELBURUAK

- Elikagaien Segurtasunaren inguruko prestakuntza-edukiak zabaltzea eta zabaldutako informazioaren kalitateari eustea.
- Berdintasun-politikak eta Euskararen erabilera bultzatzen jarraitzea.
- Gizarte-sareetako presentzia eta garrantzia handitzea.
- Lortutako aitopen-mailari eustea.

INGURUMEN HELBURUAK

- Joan-etorrietatik eratorritako isurketak konpentsatzea.

- Lekualdatzeetan autoa partekatzea.
- Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoa murriztu da.